

Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

Temática

Vejez, sueños, cuidado

Vejez. La película nos muestra un enfoque positivo de la decadencia física y mental que acompaña a la vejez, como consecuencia de aceptar las limitaciones que la edad trae consigo y la finitud de la vida.

Sueños. El mundo mágico y el onírico, el real y el imaginado se entremezclan durante toda la película, mostrándonos la influencia que tienen los sueños en nuestra vida, la ilusión de alcanzarlos y la desilusión de no poder cumplirlos.

Cuidado. Las relaciones entre los personajes se basan en el cuidado y la interdependencia. La ternura les ayudará a disfrutar de los momentos dulces y a sobrellevar los agrios.

Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

...hacia adentro. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

...hacia fuera. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

...no solo con la cabeza, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

Algunas preguntas...

...antes de la película

·Sobre la vejez: ¿cuál es nuestra actitud ante la vejez? ¿Y ante la enfermedad? ¿Qué tipo de relación tienes con la gente mayor que te rodea? ¿Están bien cuidados?

·Sobre los sueños: ¿Sueñas despierto? ¿Cuál es ese sueño que has logrado alcanzar? ¿Ayudan las fantasías a vivir mejor en la realidad?

·Sobre el cuidado: ¿Qué significa cuidar a las personas? ¿En qué necesitan la ayuda de los demás y en qué no? ¿Qué personas de tu entorno te necesitan?

...después de la película

·¿Qué características especiales tiene la relación entre Lucas y María? ¿Qué actitud tiene María ante la enfermedad de su hermano? Además de cuidar al hermano, ¿cómo se cuida de sí misma?

·¿Por qué crees que Lucas acepta la presencia de Marcos? ¿Qué se ofrecen y se dan mutuamente? ¿Qué te parece el modo de expresar amor que tiene Roma? ¿Espera algo a cambio cuando ofrece su amor y su amistad?

·¿Cómo vive Lucas la proximidad de la muerte? Los recuerdos y sueños de Lucas tienen su origen en los momentos felices del pasado. ¿Ayuda a pensar en ellos?

Un poco de chocolate

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Un poco de chocolate.

AÑO: 2008.

DURACIÓN: 96 min.

PAÍS: España.

DIRECCIÓN: Aitzol Aramaio.

REPARTO: Héctor Alterio, Daniel Brühl, Julieta Serrano, Bárbara Goenaga, Klara Badiola, Gorka Otxoa, Ramón Barea, Mikel Albisu, Marián Aguilera.

PRODUCCIÓN: Tusitala P.C. / Mundo Ficción.

Sinopsis

Película basada en la novela "Un tranvía en SP" de Unai Elorriaga. Lucas y María son dos viejos hermanos que comparten una casa llena de recuerdos de las personas que han amado. Saben que, antes o después, también ellos emprenderán el último viaje. Marcos y Roma son dos jóvenes que están solos. Ella es enfermera y pinta ventanas que embellecen las vistas desde su habitación. Marcos anda sin rumbo agarrado a su acordeón y a un montón de preguntas. Un día, el azar reúne a los cuatro y, desde entonces, Lucas y María contagiarán su especial manera de ser a Roma y a Marcos.

Zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

Txokolate apur bat



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

baketik

943-25 10 05

www.baketik.org

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Zahartzaroa, ametsak, zaintza

Zahartzaroa. Zahartzaroak berarekin dakartzen gainbehera fisiko eta mentalaren ikuspegi positibo bat ematen digu pelikulak, adinak dakartzen mugak eta bizitzaren amaiera bera onartzearen eskutik.

Ametsak. Mundu magikoa eta onirikoa, erreala eta irudimenezkoa nahastu egiten dira film osoan zehar, ametsak, horiek lortzeko ilusioak eta ez lortzearen desilusioak gure bizitzan duten eragina erakutsiz.

Zaintza. Pertsonaien arteko harremanak zaintzan eta elkarren mendekotasunean oinarritzen dira. Goxotasunak lagunduko die une gozoenez disfrutatzen eta mingotsagoak gaintzen

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Hainbat galdera...

...pelikula ikusi aurretik

·Zahartzaroari buruz: zein da zahartzaroarekiko gure jarrera? Eta gaixotasunarekiko? Zure inguruko pertsona zaharrek zer motatako harremana duzu? Ondo zainduta daude?

·Ametsi buruz: Egiten al duzu ametsik esna zaudenean? Zein da egia bihurtzea lortu duzun amets hori? Fantasiek laguntzen al dute errealitatean hobeto bizitzen?

·Zaintzari buruz: zer esan nahi du pertsonak zaintzea? Zertan behar duzu zuk beste pertsonen laguntza eta zertan ez? Zure inguruko ze pertsonen behar zaituzte zu?

...pelikula ikusi ondoren

·Ze ezaugarri ditu Lucas eta Mariaren arteko harremanak? Ze jarrera du Mariak anaiaren gaixotasunaren aurrean? Aniaz gain, nola zaintzen du bere burua?

·Zergatik uste duzu onartzen duela Marcosen presentzia Lucasek? Zer eskaintzen eta ematen diote elkarri? Romak maitasuna adierazteko duen modua zer iruditu zaizu? Ezer espero al du trukean bere maitasuna eta adiskidetasuna eskaintzen dituenear?

·Nola bizi du Lucasek bere heriotzaren hurbiltasuna? Lucasen oroitzapen eta ametsak iraganeko zoriontasun uneekin zerikusia dute. Zeintzuk dira zure oroitzapen zoriontsuak? Laguntzen al dizu horietan pentsatzeak?

Txokolate apur bat

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Un poco de chocolate.

URTEA: 2008.

IRAUPENA: 96 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Aitzol Aramaio.

AKTORE-ZERRENDA: Héctor Alterio, Daniel Brühl, Julieta Serrano, Bárbara Goenaga, Klara Badiola, Gorka Otxoa, Ramón Barea, Mikel Albisu, Marián Aguilera.

EKOIZPEN-ETXEA: Tusitala P.C. / Mundo Ficción.

Sinopsia

Unai Elorriagaren "SPrako Tranbia" liburuan oinarritutako filma. Lucas eta Maria anai-arreba adinduak dira eta maite izan dituzten pertsonen oroitzapenez betetako etxea konpartitzen dute. Badakite, lehenago edo beranduago, eurek ere egingo dutela azken bidaia. Marcos eta Roma bakarrik dauden bi gazte dira. Roma erizaina da eta bere logelatik ikusten den paisaia edertzen duten leihoak margotzen ditu. Marcos alderrai dabil, bere akordeoiari eta galdera amaigabeei eutsiz. Egun batez, zoriak laurak batuko ditu eta, ordutik, Lucas eta Mariak euren izaera berezia kutsatuko die Roma eta Marcosi.

Cine para **vivir y convivir**

Un poco de chocolate



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

baketik

943-25 10 05

www.baketik.org